


ORIENTAZIO ETA TUTORETZA PLANA

2018-2019 ikasturtea

DOLORES IBARRURI BHI

ABANTO-ZIERBENA



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1.- SARRERA ETA MARKO TEORIKOA	1
2.- TESTUINGURUA. (Zentroa eta hezkuntza testuinguruaren analisia)	1
3.- ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA.....	4
3.1.- Oinarrizko beharrak eta lehentasunen hautaketa.....	5
3.2.- Esku-hartze arloak eta ebaluazioa.....	6
3.2.1.- Hezkuntza eta ikaskuntza prozesuari laguntzea.....	6
3.2.2.- Orientazio akademiko eta profesionalari laguntzea	7
3.2.3.- Tutoretza ekintzari laguntzea.....	8
4.- TPren TUTORETZA EKINTZA PLANAREN GARAPENA.....	8
4.1.- Sarrera.....	8
4.2.- Oinarrizko gaitasunen eta helburuen garapenerako ekarpenak.....	9
4.3.- Tutorearen esku-hartze arloak oinarrizko hezkuntzan	9
4.4.- Esku-hartze plan bereziak (unitate didaktikoak)	10
5.- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK ETA BESTE BATZUK	10
6. ERANSKINA:	
6.1.- Tutoretza Plana	
6.2.- Esku-hartze plan bereziak (unitate didaktikoak)	

1.- SARRERA ETA MARKO TEORIKOA

En este periodo de transición entre dos leyes LOE y LOMCE eta Eusko Jaurlaritzak proposatuko Hezkuntza-Eredu Pedagogikoaren Markoa "Heziberri 2020" kontuan izanik erreferentzia marko ezberdinek justifikaturik; besteak beste, Delors txostenak, PISA txostenak, 2020 Europa Planak, Psikologia Kognitiboaren ekarpenak eta gizartearen garapenak, Oinarrizko Hezkuntzaren helburua izan behar da bizitzan zehar beharrezko oinarrizko gaitasunen eta ahalmenen garatzea, bere garapenerako eta errealizaziorako norbanakoaren benetako ahalmenak kontuan izanik, herritar aktiboa izateko, hala lanean, nola gizartean.

Oinarrizko Hezkuntzaren izaera orientatzaile eta hezitzalea dela ahaztu barik, ezta irakasle guztien izaera hezitzalea ere; Orientazio eta Tutoretza arloa lagunza jarraia eta sistematikoa emango duen prozesu garrantzitsuena izango da, ikaslei euren oinarrizko gaitasunak eskuratzeko, haien bizitza eta lan proiektuen jabe izan ahal izateko. Eta honen barruan, Orientazio eta Tutoretza Plana egitura antolatzailea izango da orientazio ekintza guztietan, beti ere azken helburua lortzeko zuzendurik.

Euskal Curriculumak egiten dituen ekarpenak, bai ebaluazio adierazlei, bai jarduerei, eta bai zehatz-mehatz edukiei dagokienez ere, kontuan izanik. Orientazioa beste arlo bat izango bailitzan hartu nahi da, tutorearen kontzeptu berria, ikasturte hasierako zirkularrak kontuan izanda. Horretaz gain, Hezkuntza Sailak Oinarrizko Hezkuntzarako Orientazio eta Tutoretza Plana egiteko jarraibideak eman ditu; eta horrekin batera, beste lege batzuk (LEPV 93), dekretuak eta ordenak (98koa aniztasunari dagokion arreta eta funtzioko aintzat harturik) oraindik ere indarrean daudenak orientazio lanari dagokionez eta hori guztia erreferentziatzat harturik; dokumentu honek Orientazio eta Tutoretza Plana ikasturtean zeharko lan-proposamena garatu nahi du.

Bereizten dituen elementuak bete nahian: dagoen hezkuntza testuingurura egokitzea, bideragarriak izan daitezkeen esku-hartze planen zehaztapena, eta batez ere, sor litezkeen egoera berezi eta eskaerei beharrezko adostasuna eta berrikusteko aukera ematea.

Indarrean dagoen legea kontuan izanik; hau ez da soilik ikasturte hasieran egin edota berrikusten den dokumentu bat, baizik eta ICPn, IHPn eta Urteko Bizikidetza Planean oinarritzen den benetako gida bat; honek adostasunak eta printzipioak batzen ditu, egituratu eta sistematizatu egiten dituelarik; horrela, zentroan parte-hartze sistemikoekin esku-hartzera heldu ahal izango litzateke osotasunean.

Orientazio eta Tutoretza Plan honen garapena orientabide departamentuak dituen funtzio eta zereginen (behar den bezala erregistraturik) testuinguruan burutzen da. Horren barruan tutoretza-ekintzaz gain, beste lan ildo batzuk ere jorratzen dira, besteak beste: aniztasunarekiko arreta, orientazio akademiko profesionala, zentroaren lan-talde eta proiektuetan parte-hartzea, kanpoko zerbitzuekiko harremanak, etab.

2.- TESTUINGURUA. (Zentroa eta hezkuntza testuinguruaren analista)

Orientazio eta Tutoretza Ekintza Plan hau burutuko den zentroa publikoa da, eredu linguistiko bi dituelarik, A (bakarrik Zikloetan) eta D ereduak. Ikastetxea Bizkaiko meatzaldean kokaturik dago eta egun, alde honetako biztanle gehienek inguruko

industrialdeetan lan egiten dute; lehen, labe garaietan, ontziolan edota meatzaritzan lan egin ohi bazuten ere.

Ikastetxeko familiak mota askotakoak dira, bai ekonomiari, bai kulturari dagokionez. Familiaren egitura kontuan harturik, esan beharra dugu badaudela erabat desegituratutik dauden familiak, edota amak edo aitak bakarrik osaturikoak. Horretaz gain, ikastetxean ere badaude hamabi familia inguru ijitoen etniakoak direnak, eta beste horrenbeste ere badaude beste herrialde batzuetatik etorritako etorkinen familiak.

Familia hauen harremana ikastetxearekin IGE, OOG eta Elkarbizitza Behatokiaren bidez arlo instituzionalean burutzen dira, hauek maiatzasun jakineko bilerak izanik, eta horietan hamabi familia inguruk parte hartze aktiboa dutelarik.

- Banakoaren harremana batez ere tutorearen bitartez gauzatzen da, nahiz eta egoera zehatzetan orientabide departamenturen bitartez ere izan.
- Ijito etniako familien kasuan, "AMUGE" deituriko taldearen koordinazioa eta lagunza izaten da, honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin hitzarmena sinaturik du eta.
- Ikasturte hasieran talde bakoitzeko familia guztiekin bilerak egiten dira; halaber, talde jakin batzuetan ere zenbait bilera zehatz ere egin daitezke (ikasketa eta elkarbizitza bidaientatik, zenbait arazorengatik, etab.), eta ijito etniako familiekin bakarreko bilerak egon litezkeen mugak edota mesfidantzak apurtzearen.
- Era berean, azken kursoan dauden ikasleen familiekin orientazio akademikoa eta profesionalari buruzko bilerak egiten dira. Horretaz gain, sexualitateari eta gizarte trebetasunei buruzkoak ere gauzatzen dira, ikastetxean dauden proiektuei jarraituz.
- Familia berriekin ate irekien jardunaldiak eta matrikulazio garaian azalpen-bilerak ere egiten dira.

Familiekin gertatzen den bezalaxe, ikasleek ere maila akademiko ezberdinak dituzte. Ikasleen zenbakia kursoaren araberakoa da; egun, ikasleak daude, bai DBHn, bai Batxilergoan, bai Goi Mailako Zikloan; guztira 405 ikasle inguru izanik.

Ikasleek ikastetxeen modu ezberdinak dituzte parte hartzeko: taldean egiten diren bileren edota iradokizun gutunontziaren bitartez. Gainera, OOGko eta Elkarbizitza Behatokian ikasleen ordezkarien bidez, taldeen delegatu eta delegatu-ordeen komisioaren bidez, jai komisioen bidez, normalkuntza proiektuaren bidez, agenda21eko taldearen bidez, eta elkarbizitza proiektuan dauden ikasle Laguntzaileak taldearen bidez parte har dezakete.

Proiektu ezberdinen arduradunekin aldzikako bilerak izaten dituzte, ikastetxeko beste ikasle guztiekin parte hartze aktiboa izanik.

Ikastetxean 50 irakasle inguru daude, eta horietatik bi herena inguru dago egoera egonkorrean. Euren antzinatasuna oso bestelakoa da eta bataz besteko adina 45-55 urtetako da. Irakasleen arteko harremanak gatazka maila jasangarri batean koka ditzakegu. Hala ere, lan egiteko orduan jarrera ezberdinak egon daitezke, baita ikastetxearen bizitzan edota proiektuetan parte hartzeko orduan ere. Irakasleen eta familien arteko harremanak modu berezi baten zaintzen saiatzen da, baina beti ere pertsona bakoitza ezberdina dela kontuan izanda. Ikasleekiko harremana oso profesionala da eta zenbait kasutan nahiko hurbila. Irakasleek ikastetxeen parte hartzeko bide ezberdinak dituzte: OOG, Elkarbizitza Behatokia, departamentuak eta departamentuko buruak, klaustroa, irakasle taldea, proiektuak, etab.

Ikastetxean langile lagunzaileak ere badaude; HBSP taldeen ikasleentzat (9 ordu) eta pedagogia terapeutikoak (1 eta ½ irakasle). Horretaz gain, AMUGE izeneko taldeko pertsona batek ere koordinatu eta parte hartzen du, baita udaletxeko gizarte-ongizateko (gizarte zerbitzuak) arduradunek ere. Ikastetxean irakasleak ez diren langileak honako hauek dira: 2 idazkari, 2 atezain, jantokiko 4 langile eta 4 garbitzaile, OOGn ordezkari bat eta bizikidetza behatokian ordezkari 2 dituztelarik.

Ikastetxeak arkitektura-oztoporik ez dauka eta igogailu bat du. Ikerleen laurden bat jantokiko zerbitzuak ematen zaizkie, eta gutxiengo batek eskola-garraioa erabiltzen du. Hezkuntza-zerbitzuei dagokienez, liburutegia, ekintza osagarriak eta eskolaz kanpokoak aipa daitezke, aurten HAUSPOA programan egongo garenez ordutegi eta eskaintza moldatuko dugu.

Ikastetxeak ingurunearekin dituen harremanei dagokienez: zonaldeko Berritzegunearekin oso harreman onak dauzka, mintegietan eta berrikuntza-proiektuetan parte hartuz eta lagunduz; ikasleak datozen hezkuntza zentroekin oso harreman onak dauzka eta behar den informazioa trukatzen da; udaletxearekiko harremanak ezin hobeak dira; eta zonaldeko beste gizarte elkarteekin ere oso harreman ona dago (Osakidetza, Hezkuntza Ikuskaritza, etab.)

Ikastetxearen azpiegitura kontuan izanik, gelen kopurua estu samarra da eta lan egiteko eta biltzeko leku gehiagoren beharra antzematen da. Horretaz gain, kanpoko aldean leku estalien falta igartzen da.

ICPa oraindik egin gabe dago. AJA onartu egin da eta Bizikidetza Arauak onartu egin dira, IHPa eginda baina adoztu behar dugu. Ikastetxearen Urteko Plana (IUP) eta Ikastetxearen Memoria urtero egiten da. Urteko Bizikidetza Proiektua martxan dago Harrera Planarekin eta Eskola-Bitartekaritza Proiektuarekin batera. Bizikidetza Behatokia ere badago institutuan. Amaitzeako Aniztasunaren Trateraren Plana, Harrera Plana gehi Hezkidezarena edinda daude ere.

Ikastetxearen egitura antolatzaileari dagokionez, zentroaren organograman karguen banaketa eginda dago bai eta euren funtzoak zehaztuta ere. Departamentuka funtzionatzen da zaitasunekin maila horizontaleko koordinazioari dagokionez. Koordinazio organo bezala, departamentuko buruez gain; etapako, pendienteen, proiektuen eta HBSP taldeen koordinatzaileak ere badaude. Horietaz gain, tutoreak, ikastetxearen orientatzailea eta batzorde pedagogikoa (zuzendaritza taldeak, etapak eta orientazioak osaturik) ere aipatu behar dira. Egungo zuzendaritza taldea berriztu da. Kurtso bakoitzak bere tutorea du eta kasu jakinetan bi tute ere izan ahal ditu. Horretaz gain, beste batzorde batzuk ere badaude ikastetxearen proiektuekin bat datozenak, esaterako, elkarbizitzakoa, normalkuntzakoa, agenda21ekoa eta IKTekoa.

Ikastetxean elkarbizitzakoa 97-98 ikasturteik hezkuntza berriztatzeako proiektuen bitartez koordinatua izan da, bere ibilbidea ezberdina izan bada ere. Proiektu hauek eskaera jakin batzuei erantzunez sortu ziren eta egun ikastetxearen Urteko Bizikidetza Planaren garapenaren hasierarekin eta Elkarbizitzakoa Behatokiaren sortzearekin batera, berpiztu egin dira.

Gure hezkuntza lana garatzen den inguru hurbileko testuingurua kontuan izanik, dokumentu honetan azaltzen den Orientazio eta Tutoretza Plana dugun egoerara egokiturik egon beharko da, mugak eta abantailak kontuan harturik; daukagun ikasleei erantzuna emanez.

Orientazio eta Tutoretza Plana ez da eta ezin da izan ekintza isolatuen bilera, baizik eta irakasle taldearekin adostutako eta sistematizatutako zerbait. Honek klaustroaren, batzorde pedagogikoaren, zuzendaritza taldearen eta OOGren onarpena izan behar du; horretaz gain, IUPn ere badago eta ikastetxeko AJAk esaten duena kontuan hartzen du. Halaber, tutoretza ekintzarako eta hezkuntza orientazioaren garapenerako irizpideak ICPn erregistraturik daude, indarrean dagoen legeak esaten duen moduan; eta horrek guztiak bere lekua du IHP.

3.- ORIENTABIDE DEPARTAMENTUA

Orientabide departamentua osatzen dute: orientatzailea eta departamentuko burua, pedagogia terapeutikoko irakasleak hezkuntza premia bereziak dituztenei erantzun zuzena ematen diotenak, , HBEP irakasleak eta noizean behin orientazioan, tutoretzan eta ikasleen jarraibidean parte hartzen duten beste agente batzuen kolaborazioa ere suertatzen da.

Orientabide departamentuaren funtzionamendua, astean ordu beteko bilera duena, ondokoetan oinarritzen da: talde-lanean, komunikazio zuzenean eta kideen arteko adostasunean, prebentzio ikuspegiarekiko planifikazioan, ikasleen erabateko garapen eta inklusioan, oinarri gisa diziplinartekotasunean, etab. Eta ikasturte hasierako zirkularrean departamentuko funtzi nagusia bereganatzen du: "Orientabide departamentuaren funtsezko zeregin partea hartzean, animatzean, laguntzean eta ikastetxeko hezkuntzan esku hartzeko erabakiaren foro ezberdinak irakasleekin batera lan egitean datza. Foro ezberdinak honako hauek direlarik: zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, mintegi didaktikoak, irakasle taldea, tutoretzak, irakasleak, etab. Talde hauek proiektuen garapenean dituzten ekarpenekin, ebaluazio diseinuekin, interbentzio irizpideekin eta, azken finean, ikasleen hezkuntza-orientatzaile lanean laguntza ematen dute."

Era berean, orientabide departamentuak aholkularitza funtzioa eta psikopedagogiakoa betetzen du, parte hartze eta osagarritasun marko kolaboratibo batetik, ikastetxeko hezkuntza egitura guztien eta irakasle guztien laguntzaz, ekintza bakoitzaren garapenean adostasunik handiena bilatuz. Horretaz gain, ikasturte hasierako zirkularrean zehazten diren funtziok ere beregain hartu eta betetzen ditu: ikasketa zailtasunen analista, kasu bakoitzaren jarraipena, orientazio pertsonala eta akademiko-profesionala, elkarbizitzako arazoei aurre egitea, etab.

Orientazio eta hezkuntza lana irakasle guztien zeregin dela argi izan arren, guztien ardatza izaten ahaleginduko da, ikastetxeko ikasle guztien gaitasunen garapena azken helburu gisa hartuz. Horrela, euren bizitza osoan zehar ager dakizkiekeen lan egoerei eta egoera pertsonalei aurre egin ahal izateko, oinarrizko gaitasunez jabetuz.

Orientabide departamentuak laguntza eskatzen du, denon artean ikastetxeko hezkuntza-lana aurrera eramateko.

Honi guztiari erantzuteko, ordutegi barruan momentu ezberdinak daude departamentu kide guztien artean lanak banatzeko eta antolatzeko erraztasuna ematen dutenak:

- Orientabide departamentuko buruak departamentuko buruen batzordean parte hartzen du (hamabostero ordu bete), bilera horietan zabaltzen den informazioa transmititzeko helburuarekin, zuzendaritza taldea eta departamentu ezberdinaren arteko lotura eginez.
- Batzorde pedagogikoan parte hartzen du astean behin ordu bateko bilera batean.

- Orientazio eta Tutoretza Plana: Ikasketa burutzak tutoretza eta orientazio ekintzak bideratu eta koordinatzen ditu, orientabide departamentuaren laguntzaz. Horretarako, tute guztiak bilera bat dute ikastetxeko orientatzalearekin biltzeko, tutoretza-ekintzak planifikatzeko, jarraitzeko eta koordinatzeko (ordu bat astero edo hamabostero mailaren arabera). Orientabide departamentuak irakasleei lagunza ematen die tutoretza funtzioa arrerra eramateko, batzorde pedagogikoan hartutako erabakiak kontuan harturik.
- Ebaluazio sesioak.
- Irakasle Taldeen bilerak.
- Kanpoko agenteekin egiten diren bilerak, udaletxeko gizarte zerbitzuak, zonaldeko Berritzegunea (mintergiak eta NEEko aholkularitza), Iniciativa Gitana izeneko taldea, eta beste batzuk (ikasleak tratatzen dituztenak: haur psikiatria, psikologoak, kabinetek, etab.)
- Berrikuntza proiektuak koordinatu eta eurei lagunza eman.

3.1.- OINARRIZKO BEHARRAK ETA LEHENTASUNEN HAUTAKETA

Aldez aurretik aipatutako guztia, indarrean dagoen legedia eta justifikatzen duen marko teorikoa, ikasturte hasieran geure arloari erreferentzia egiten diona (departamentuaren eta orientatzalearen funtzioak), AJA eta ikastetxeko beste oinarrizko dokumentu batzuk kontuan harturik, eta batez ere, aurreko ikasturteko azken memoria, non beharrizanak eta beharrezko aldaketak zehazten diren, bai departamentuari dagokionez, bai interbentzio plan espezifikoei dagokienez. ikastetxeko orientabide departamentuak ikasturte honetarako honako lehentasunak eta esku-hartze ardatzak zehazten ditu:

- Ikastetxeko egitura antolatzaile ezberdiniek lan egitea, eta aspektu psikopedagogikoetan eta heziketa proiektuetan laguntea.
- Aniztasunaren trataeraren jarraipena eta bere garapenean lan egitea.
- Icasleen ezaugarri eta beharrei erantzun hezitzalea bermatzea; banakako jarraipena.
- Tutoretza ekintza eta orientazio akademiko eta profesionalaren garapenean laguntea. (Orientazio eta Tutoretza Plana).
- Orientabide departamentua benetan komunitate osoarentzat errekurso hezitzalea izaten laguntea; familiekin, ikasle eta irakasleekin.
- Irakasleek tutoretza ekintzarako jarrera positiboa izan dezaten laguntea, tutorearen papera azpimarratuz heziketa lanean koordinatzailea gisa.
- Tutorearen funtzi berrien garapenean laguntea eta aholku ematea.
- Irakasleei beharrezkoak diren errekursoak ematea eta laguntea, euren ikasleen beharrei erantzun hezitzalea emateko.
- Bizikidetza eta gatazken konponbideetan lan egitea eta bultzatzea. (bizikidetza plana, bizikidetza behatokia, ikasle Laguntzaileak, tutoretza ekintza, etab.)
- Kasu berean parte hartzen duten agente psiko-sozio-hezitzalee ezberdinen lanak koordinatzea.

3.2.- ESKU-HARTZE ETA EBALUAZIO ARLOAK

Tutoretza ekintza eta orientazio planez gain, dokumentu honen lehentasunezko gai gisa beste oinarrizko jarduera arlo batzuk ere ikusten ditugu. Arlo hauek hiru multzo

handitan sailkatu ahal izango lirateke, aldez aurretik aipatutako helburuen lorpene kontuan izanik, honako hauek izango liratekeelarik:

Hezkuntza eta ikaskuntza prozesuari laguntzea.

Orientazio akademiko eta profesionalari laguntzea.

Tutoretza ekintzari laguntzea.

3.2.1.- Hezkuntza eta ikaskuntza prozesuari laguntzea

Hezkuntza eta ikaskuntza prozesuari dagokionez, orientabide departamentua oinarrizko gaitasunen garapena eta hezkuntza gaitasun orokorrak berean integratzen saiatuko da; horretarako lana proiektu orokorretan zentratzen ahaleginduko da (1. eta 2. mailetan, batez ere) eta diziplinarteko oinarriarekin, horrela integrazioa eta edukien generalizazioa lortzeko, hala nola hauen aplikazioa testuinguru ezberdinetan. Arlo honetan bereziki ikasten ikasteko gaitasuna landuko da, gaitasun honen bitartez ikasketa prozesua modu eraginkorragoan eta autonomoan garatzeko gaitasuna garatzen da denboran zehar, helburuak eta bakoitzaren beharrak kontuan izanik. Hau da, ikaskuntza prozesuan subjektu aktiboa lortzea, autorregulazio gaitasuna garatzen duena eta dakienaz eta jakin behar duenaz baliatzen dakiena. Estrategiak eta metodo eraginkorrapak garatzea aprobetxatzen jakiteko eta bere eskarmenuei ahalik eta atarramendu gehien ateratzeko, aldez aurretiko planifikazioa eta ondorengo hausnarketa eginez, azken honek ondorio aplikagarrietara heldu ahal izateko.

Arlo honetan ikasleekiko helburua hausnartzea izango litzateke; eskola praktikak, planifikazioa, teknikak, esfortzua, etab. garatzeko moduari buruzko jarrera zabalarekin, eta horrela, errendimendua ebaluatu ahal izateko, eta horren araberako aldaketa eta beharrezko hobekuntzak egiteko, emaitza hobeak lortu nahian.

Garatuko diren edukiak, beranduago planen garapenetan ikusiko dugunez, antolakuntzazko guztiak, ikasketa planifikazioak, ikasketa estrategia eta teknikazkoak izango dira eta azkenik, metakognizioaren garapenekoak ere bai.

Horretaz gain, ebaluazio irizpideak dagozkion planean zehaztuko dira: agenda eskolarraren erabiltzea bai ala ez, lanaren aurretik planifikazioa egitea bai ala ez, zuzenketak sartzea bai ala ez, beharrak lehenestea bai ala ez, etab.

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa
Ikasleei buruzko informazioa duen karpeta	Tutoreak	Ikasturte hasiera
Proben eta galdeketen aplikazioa	Tutoreak - Orientatzailea	Lehenengo hiruhilabeteko
Ikasteko zaitasunen antzematea	Irakasle taldea - Orientatzailea	1. ebaluazioa eta ...
Ikasteko estrategiak eta planifikazioa	Tutoreak - Orientatzailea	1. eta 2. ebaluazioak
Ikasketa prozesuan inplikatzea	Tutoreak- Irakasle taldea	Jarraitua
Informazio-ebaluazio bilketaren txantiloia	Batzorde Pedagogikoa	1. ebaluazioa
Esku-hartze proposamenak	Tutorea - Irakasle taldea - Orientatzailea	Aurre eta ebaluazioak
Emailzei buruzko hausnarketak	Tutoreak - Ikasleak- Irakasle inplikatuak	Aurrebaluazioak eta ebaluazio ostean
Kasu bereziei erantzutea	Tutoreak - Orientatzailea	Jarraitua
Possible diren ibilbide hezitzaleak	Tutorea - Irakasle taldea -	2. ebaluazioa

Familientzako aholkularitza eta laguntza	Orientatzailea Tutoreak - Orientatzailea	Jarraitzua
--	---	------------

Lehenengo arlo honen barruan, aniztasunari ematen zaion arreta eta erantzuna azpimarratu behar da, orientabide departamentuaren laguntzaz, erabateko eskola inklusiboa garatzen saiatzeo, ICPn zehazturik.

Horrela, ikasleen hezkuntza behar bereziei erantzun egokia ematea izango da helburu nagusia, oinarrizko gaitasunetan erreferentziazko maila minimoak lortzeko edota goi mailakoak, gaitasunen arabera.

Garatuko diren edukiak programa bakoitzean ezarrita azalduko dira, baita ebaluazio irizpideak ere.

Era berean, behar jakinei erantzuteko beste ekintza batzuk ere gauzatuko dira: banakako eta taldeko laguntza, taldeko irakasle bi, lanak talde interaktiboetan, bikoizketak, hautazkotasuna, hezkuntza errefortzurako ekintzak, eskola osagarrirako programak, HBSP, DC taldeak, HIPI berandu sartzen diren ikasle etorkinentzat, etab. Ikasle guztiei, kasuz kasu, dituzten hezkuntza ibilbide guztietara orientatuz: trebakuntza profesionala, lanen bidezko ikaskuntza gelak, maila errepikatzea, derrigorrezko hezkuntzaren aldiaren salbuespenezko luzapena edota kasuaren arabera egokien ikusten dena.

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa
Banakako planen errerealizazioa	Irakasleak - HBSP - DC - Tutorea	Lehenengo hiruhilabetekoak
Irakasle taldearen koordinazioak	Irakasle taldea - Irakas. aniztasuna	Aurre eta ebaluazioak
Kasu eta familien jarraipena	Arduradunak - Orientatzailea	Jarraitzua
Kontrastea eta jarraipena	Orientatzailea - Irakasleak - Berritzegunea	Jarraitzua
Auto-estimu lana, HHSS,...	Tutoreak - PT - HBSP - DC	Hiruhilabeteko
Tutoreekiko koordinazioak	Tutoreak - Irakas. aniztasuna	Astero
AClen errerealizazioa	PT - Arloko irakaslea - Tutorea	Urria
Posibleak diren hezkuntza ibilbideak	Tutorea - Irakasle taldea - Orientatzailea - Diber.	2. ebaluazioa
Orientabide departamentuaren koordinazioa	Orientatzailea - Irakas. aniztasuna	Astero
Informazio bilketaren espedientea	Orientatzailea - Irakas. anizt. - Tutorea	Jarraitzua
Kanpoko agenteekiko koordinazioa	Orientatzailea eta ...	Jarraitzua
Eskola osagarriaren koordinazioa	Orientatzailea - Zentr. Osagarria	Hiruhilabeteko

3.2.2.- Orientazio akademiko eta profesionalari laguntzea

Orientazio akademiko eta profesionala eta berari dagozkiion programa bereziak Orientazio eta Tutoretza Planaren barnean daude. Honek, batez ere, lan berezia izango du DBHko azken mailan, Batxilergoan eta Heziketa Zikoetako 2. mailetan, beranduago ikusiko den bezalaxe.

Arlo honetan batez ere norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna garatzen saiatuko gara, ekiten ikastea bezala ulertuta (planifikazioa eta kudeaketa barne),

heldutasunaren eta gizarteratze pertsonalaren garapena, pertsonaren garapen osorantz. Ni neu izaten ikastea da, aldi berean bere proiektuak garatuz eta ebaluatuz, konfiantzaz eta erantzukizunaz, egoeren analisiak eginez, aukerak baloratzu eta erabakiak hartuz, lortu nahi den helburua erdiesteko. Hori guztia bizitza osoan zehar auto-orientazioa abiatu nahian.

Arlo honetan ikasleekin jorratu nahi den helburua euren buruaren ezagutzean miatzea izango litzateke, autonomiaz errealtitateari buruz hausnartuz, bere etorkizuneko proiektu pertsonala definitzera hartzeko, dituen gaitasunak, interesak eta baloreak modu egoki batean kontuan hartuz; horrela bere bizitza bideratuz.

Aurrerago planen garapenetan ikusiko dugunez, garatuko diren edukiak informazio bilketa eta aukeraketari buruzkoak izango dira, erabakiak hartzeko, proiektu akademiko-pertsonala zehaztu, bokaziozko heldutasun programak, etab.

Eta ebaluazio irizpideak dagozkion planean zehazturik azalduko dira: aukera anitzen artean aldekoen eta kontrako analista, errealtitatean nolakotasun eta gaitasunen hautematea bai ala ez, jasotako informazioaren antolakuntza bai ala ez, etorkizuneko aurreikuspena egiteko gaitasuna bai ala ez, etab.

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa
Hezkuntza eskaintzari buruzko informazio eguneratua	Orientatzailea - Tutoreak	1. eta 2. hiruhilabetekoak
Aukeraketa prozesuan laguntzea (programak, banakako tutoretzak, taldekoak-familiekin)	Orientatzailea - Tutoreak	Jarraitu eta 2. hiruhilabetekoan
Informazioa erraztea	Orientatzailea - Tutoreak	Jarraitu eta 2. hiruhilabetekoan
Selektibitaterako eta unibertsitaterako aurrematrikulak	Orientatzailea - Tutoreak - Idazkaritza	2. hiruhilabetekoak
Possible diren hezkuntza ibilbideak	Tutorea - Irak. taldea - Orientatzailea	2. ebaluazioa
Aurrematrikulak, sarbide probak, ...	Orientatzailea - Tutoreak	2. hiruhilabetekotik currera
Ikastetxearen hautazkotasunen proposamenak	Departamentuak - Zuzendaritza taldea	2. eta 3. hiruhilabetekoak
Orientatzailearen aholku DBHko 4. mailan edo lehenago salbuespenezko kasuekin	Tutorea – Irakasle taldea – Orientazioa	Ikasturte amaiera
Beste zentro batzuk eta fakultateak bisitatu	Tutorea - Orientatzailea	3. ebaluazioa
Familiei aholkularitza	Tutorea - Orientatzailea	3. ebaluazioa
Eskaeren bilketa eta erantzuna	Tutorea - Orientatzailea	Jarraitu
Ikasle eta familia arteko orientazio solasaldiak	Orientatzailea	2. hiruhilabetekoak
Prozesuaren jarraipena	Tutorea - Orientatzailea	Jarraitu

3.2.3.- Tutoretza ekintzari laguntzea

Tutoretza ekintzari laguntzea dokumentu honen ardatza izango da, horregatik beranduago gehiago garatu eta azalduko da. Dena dela, tutoretza ekintzaren helburua honako hau izango da: norberaren ezagutza (auto-ezagutza) eta ikasleek euren buruaren onarpena, hobekuntza euren sozializazio prozesuan, erabakiak hartzeari eta gatazkak konpontzeari buruzko ikaskuntza (lehen aipaturiko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua barne) eta euren bizitza pertsonala eta profesionalako proiektuan protagonismoaren garapena (puntu honetan orientazio akademiko profesionala gehitu ahal da).

Arlo honetan landuko diren gaitasunak izango dira aldez aurretik aipatutakoak eta beranduago zehaztutakoak: ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. Azken gaitasun hau elkarrekin biziñen ikasteko ardatz gisa ulertz, elkarbizitza bere baitan, autoregulaziari eta auto-kontrolari dagokionez, kolaborazio-kooperazioa, negoziazioa, bitartekotza, parte hartze demokratikoa, giza-pertsonaleko gaitasunak eta gatazken konponbidea. Taldean bakoitzaren eta guztien integrazio aktiboaren prozesua bizi izanik, ezberdintasunen, aniztasunaren eta inklusioaren onarpenaren lanaren bidez; eta horrela, bidezko gizartea lortzeko asmoz.

Horretaz gain, tutoretza ekintzak koordinatu, dinamizatu eta sinergiak sortu beharko ditu beste arlo guztietako komunak dituzten oinarrizko hezkuntza gaitasun guztietan, hezkuntza komunitatean inplikaturik dauden agente guztiei lagunduz.

Hori dela eta, zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunean lan egitea ez zaio ahaztuko, osasunari (elikadura, aisialdia, kontsumoa, etab.) dagokionez prebentziozko eta paliatiabozko ohiturak sartu eta garatzeko orduan, edo gorputzaren integrazioa (norbanakoaren irudia, kontzeptua, auto-estimua, etab.) eta sexualitatea (garapen afektibo-sexuala, etab.), esaterako, bere esku hartze plan berezietai, bizi-kalitateko eta garapen pertsonaleko funtsezko elementu gisa.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari dagokionez, komunikazio tresna gisa hizkuntza erabiliko da, irudikapena, interpretazioa, uermena, adierazmena eta joskera beste batzuen artean errealityearena, ezaguerarena, pentsamenduarena eta emozioena testuinguru ezberdinetan; elkarbizitzako gaitasuneko erabilera funtzionalean eta gatazken konponketan, horrek dakarren guztiarekin (enpatia, kritika, begirunea, etab.)

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunari dagokionez; bilaketa, prozesaketa, komunikazio eta informazioaren eraldatzeko gaitasunen garapenetan, eta plan ezberdinetan landutako autonomia pertsonala, kritiko edota hausnarketaren garapenean.

Eta beste gaitasun guztiak ere tutoretza ekintza planean ere landuak izango dira, nahiz eta arlo zehatzetan gehiago lantzen diren, esaterako: matematikarako gaitasuna informazioen (galdeketak, testak, taulak, etab.) interpretazio eta ekoizpenari dagokionez edo indukzio eta dedukzio prozesuak; hori guztia gatazken konponketari eta erabakiak hartzeari begira, zaitasun ezberdineko eguneroko egoeretan.

Eta azkenik, giza- eta arte- kulturarako gaitasunean, estimu, gozamen, begirune eta adierazpen-ekoizpenari dagokienez eta errealityearazten bizitza kultural eta artistikoan parte hartzea.

Tutoretza ekintza arloaren edukiak hemen aipatutako beste esku hartze arloak ere batzen ditu, hori dela eta, bloke ezberdinetan antolatuko dira, geroxeago TP garapenean ikusiko den bezalaxe. Nahiz eta orain lehenengo mailetako talde kohesiorako lanaren garrantzia ikusi, bai estrategietan, bai ikasteko ohituretan. Kontsumo eta arlo afektibo-sexuala ere ahaztu barik, ez giza-gaitasunen arloa, ez gatazken konponketa elkarbizitza proiektuan dagoena; eta derrigorrezkoa den batez ere azken mailetako orientazio akademiko-profesionala.

Ebaluazio irizpideak dagozkien plan berezietai zehazturik azalduko dira.

Ekintzak	Arduradunak	Denboralizazioa
----------	-------------	-----------------

TP-aren elaborazioa	Orientatzailea - Tutoreak	Iraila - Urria
TP-aren onarpena	Batzorde Peda. - Klaustroa - OOG	Urria
TP-aren garapena	Tutoreak	Jarraitua
TP-aren garapenean laguntzea	Orientatzailea	Jarraitua
Hezkuntza ibilbide posibleak	Tutorea - Irakas. taldea - Orient.	2. ebaluazioa
Banakako eta taldeko jarraipena	Tutorea - Orientatzailea	Jarraitua
Familiekiko harremana	Tutorea - Orientatzailea puntualki	Jarraitua
Irakasle taldeekiko koordinazioak	Tutorea - Orientatzailea	Aurrebaluazioa...
Kanpoko agenteekiko koordinazioa	Tutorea - Orientatzailea eta ...	Jarraitua
Laguntzak	Tutorea - Orientatzailea	Jarraitua
Taldeko eskaerei erantzuna	Tutoreak	Jarraitua
TP*-aren ebaluazioa	Tutoreak - Orientazioa - Batz. Ped.	3. hiruhilabetekoa
ACI, HBSP, ... laguntza	Tutorea	Jarraitua

*Nahiz eta aipatu behar den, orientabide departamentuak ebaluazioa ulertzen duela ebaluazio jarraitua, formatibo eta orientatzaile gisa. Honek ikasturtean zehar egin beharreko zuzenketak eta aldaketak egiten laguntzen digu, urteko memoria burutzeko unea itxaron barik; izan ere, horiek guztiak urteko memorian aipatuko dira eta horietaz gain, hurrengo ikasturteari begira aurreikusten diren beharrak eta hobekuntzak.

Hori dela eta, ebaluazioko irizpideen bitartez plan berezien ebaluazioaz gain, talde bakoitzean egiten diren tutoretza saioak ebaluatuko dira tutoreekin orientatzailearekin egiten diren bileretan; aurre eta ebaluazio osteko saioetan irakasle taldearekin batera taldearen ibilbidea eta banakako kasuak ebaluatuko dira eta bestetik, ikasleekin ere ebaluatuko da; asteroko bileretan aniztasuneko agente ezberdinak (HBSP, DC, PT, PRL, etab.) kasuan kasuko eta euren garapenaren jarraipen zehatza egingo da.

Ebaluazio honekin lortu nahi diren helburuak honako hauek izango dira:

- Planean zehaztutako helburuak zein neurritan lortu diren baloratzea eta ezagutzea.
- Ikastetxeko esku-hartze orientatzaile eta psikopedagogiakoaren diseinua hobetzea.
- Ikastetxeko hezkuntza-kalitatea handitzea eta hobetzea.

Era berean, aplikatuko diren ebaluazio irizpideak honako hauek izango dira:

- Esku-hartze orientatzaile eta psikopedagogiakoa ikastetxeko benetako testuinguruaren oinarritzen da eta ikasleen aniztasunari eta ikastetxeko beharrei erantzuna ematen saiatzen da.
- Orientazio ekintzan parte hartzen duten langile guztien partaidetza izaten saiatu da, bai diseinu fasean, baita garapen eta jarraipenean ere.
- Esku-hartze orientatzaile eta psikopedagogiakoaren eraginkortasun mailak egokiak dira.
- Parte hartzaile guztien implikazio eta gogobetetze maila altua da.
- Errekurtoen egokitasuna zuzena da, Plana aurrera eramana ahal izateko.

Ebaluazioa burutzeko erabiltzen ditugun bitartekoak hurrengoetan oinarritzen dira: bizi ari diren eskarmentuen kontrastea; ikasle, irakasle eta familiekiko elkarritzetako agente eta subjektu ezberdinenzako galdeketak eta eskala ezberdinak, tutoretza programazioen ebaluaziorako eta programa desberdinaren funtzionamendurako; tutoreen auto-ebaluazioa; orientabide departamentuko ekarpenen ebaluazioa; eta departamentuaren barruko ebaluazioa. Hau guztila ikasturte amaierako memoriaren ebaluazio txostenean sarturik

egongo delarik; honek datu guztien bilketa egingo du, diseinuan eta garapenean, eta orientabide departamentuko programazio hau jasoko dutenentzat.

Aipatutako memoria hau, ez da ulertu behar garatutako ekintzen deskripzio zehatz bat bezala, baizik eta lorpenei buruzko hausnarketa sintesi bat bezala, aurkitutako zaitutasunak, kasu bakoitzean eragina izan ahal izan duten faktore guztiak, eta zelan ez, datorren ikasturteari begira Planean moldatu beharreko aspektuak. Laburbilduz, ebaluazioarekin lortu nahi dena da burututako interbentzioen eraginkortasunaren ezagutza eta hurrengo ikasturteari begira hobetu beharreko aspektuen azterketa (gaitasunak, helburuak, esku-hartze estrategiak, baliabideak, ekintzak, etab.)

4.- TP-aren GARAPENA

4.1.- SARRERA

Egun indarrean dauden lege printzipioei erreferentzia egiten dion dokumentu honetan zehazten den bezalaxe; Tutoretza Plana, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren barruan dagoelarik, ekintzak batzen dituen egitura da, oinarrizko hezkuntzan dauden ikasleentzat dira, hauek batez ere tutoretzetan landuko dira eta euren helburua oinarrizko gaitasunen lorpena izango da.

Azken helburua norbanakoaren gaitasunen garapena izango da, euren bizitzan zehar testuinguru eta egoera ezberdinei erantzuna eman ahal izateko beharrezko diren gaitasunak bereganatzeko.

Bestetik, ezin izango dugu ahaztu gure arlo honetako lana batez ere tutoretzakoa den arren (edukien antolakuntza eta tutoretzako esku-hartze ezberdinaren sistematizazioa), curriculum osoan azaltzen dira garatu beharreko edukiak eta diziplinarteko eta zeharkako moduan jorratu behar dira, hezkuntza helburuak lortu nahi baditugu, behintzat, paperetik baino harago.

Gure tutoretza ekintza hurrengo puntuetara bideratuta egon beharko da: ikasleen onarpen eta ezagupenera, bere sozializazio prozesuaren garapenera, erabakiak hartzen ikasketara, euren ikasketa arazoen konponketara eta euren proiektu pertsonala eta profesionalaren protagonismora. Eskolatze prozesuan gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari diren aspektuak eta taldean (gizarte indibidualista baten aurrean) lanaren errefortzuan behar handia erakusten dutenak, ikastetxe eta familia arteko kolaborazioa, batera lan egiteko, pertsonen arteko komunikazioaren garapenaren beharraren aurrean.

TP-aren lanketa adostuta eta onartuta izan beharko da, eta horren garapena tutoreari dagokio, taldean inplikaturiko agenteen eta irakasle taldearen laguntzaz, beti ere orientatzailearen aholkuak eta lagunza jasoz.

Tutoretza eta orientazio arloak ikaslearen eragina du, bai banakako, bai taldeko aspektuetan, baita taldearen garapenean ere. Pertsonaren hazkundea norbanakoa da, baina erlazioan hazten da; hori dela eta, taldea funtsezkoa da eta tutoreak alde bietan lan egiten du.

4.2.- OINARRIZKO GAITASUNEN ETA HELBURUEN GARAPENERAKO EKARPENAK

TPak egin beharreko gertakari eta ekarpenak oinarrizko gaitasunei dagokienez dokumentu honen 3.2 puntuaren zehazten dira, orientabide departamentuko esku-hartze hiru arloetan; eta batez ere, C atalean, tutoretza ekintzaren laguntzari dagokionez; (hori dela eta, puntu honetan horra bidaltzea egokiena delakoan gaude).

Tutoretza ekintzaren helburu orokor eta nagusia, askotan esan dugun bezalaxe, ikasle guztien ikasketa eta heltze prozesuan laguntzea eta orientatzea izango da, oinarrizko gaitasunak bereganatzentzat laguntzeko, euren prozesuaren jabe izateko eta horrela etorkizuneko proiektu pertsonala eta profesionalaren jabe ere izateko.

Plan honen helburu berezi bezala honako hauek izango lirateke:

- 1.- Norbanakoaren ezagueraren garapena, auto-estimu baikorrarena eta autonomiarena eta sozio-laboraleko errealitateari buruzko hausnarketa, etorkizuneko bere proiektu pertsonala definitu ahal izateko, euren balore eta gaitasunei egokituz, eta horrela euren bizitza bideratu.
- 2.- Egoera gatazkatsuak, bai pertsonalak bai sozialak, eta bizitzaren eskarmentuak autonomiaz eta jarrera kritikoaz analizatzea; irtenbide alternatibo ezberdinak baloratz, hitz eginez erabakiak hartu ahal izateko, besteekin eraikiz eta koherentea izanik balore eta pentsamoldekin.
- 3.- Ikastetxe eta gelako bizitzan parte hartzea, euren funtzionamenduaren erabaki eta ekintzetan inplikatuz, elkarbizitza arauak errespetatuz; horrela, hiritar gisa bizitzeko presta dadin, arduratsua, errespetagarria, kritikoa eta parte-hartzalea izanik.
- 4.- Eskola praktikak garatzeko moduari buruzko jarrera kritikoaz hausnartzea, euren esfortzua, eskola errendimenduaren kontrolatzeko modua eta beharrezko zuzenketak sartzeko, emaitza egokiak lortu ahal izateko.
- 5.- Komunikazio, entzumen eta kolaborazio jarrera baikorra garatzea, taldeko lanetan ardura egokia hartuz, horrela baloratzeko eta besteekin pentsamoldeak eraikitzeko gai izateko, eta taldean proiektuak eta kolaborazio sareak egiteko gai izateko.
- 6.- Eguneko bizitzan jarrera baketsu eta toleranteak sustatzea, injustizia edo indarkeria egoeren aurrean kritiko azaltzea; eta horrela, portatzeko moduak balore ezberdinei erantzungo die, begiruneari, justiziari, berdintasunari, bakeari eta elkartasunari kultura arteko gizarte batean.

4.3.- TUTOREAREN ESKU-HARTZE ARLOAK OINARRIZKO HEZKUNTZAN

Tutorean papera eskola sistema barruan ardatza da. Bere funtzioen artean ikasketa-irakaskuntzaren prozesua koordinatu behar du eta horregatik, ikastetxe barruan ikaslearen hazkundean sartzen diren agenteak koordinatu behar ditu. Gainera, pertsona garatu eta mugitzen den errealitate sozio-familiartean parte hartze dutenak ere koordinatu behar ditu.

Tutorearen lana ikaslearen hazkunde eta heltze pertsonalean datza. Bere esku-hartzea ikaslearen oinarritzen da, baita guraso eta irakasleengan ere; hau da, euren garapenean parte hartzen duten horiengana.

Hori dela eta; bere funtzio eta lan guztiak, esku-hartze hiru arlo hauetan, honako hauek izango dira: jarraipena, koordinazioa, aholkularitza, hartu-emana, kolaborazioa, informazioa, parte-hartzea, etab.

Ekintzak	Eremuak
----------	---------

Integrazioa taldean, parte hartzea	Ikasleak
Aholkatze pertsonala	Ikasleak
Jarraipen orokorra	Ikasleak
Eskaerei erantzun	Ikasleak
Irakasle taldearen koordinazioa	Irakasleak
TP-ren garapena	Irakasleak
Informazio trukaketa	Irakasleak
Kolaborazioa aniztasunean (ACI, HBSP, DC, ...)	Irakasleak
Hezkuntza prozesuaren jarraipena	Familiak
Informazio trukaketa	Familiak
Aholkularitza	Familiak
Parte hartzea erraztu	Familiak

(Eranskina ikusteko)

4.4.- PLANES ESPECÍFICOS DE INTERVENCIÓN (UNIDADES DIDÁCTICAS)

Se encuentran recogidas en un anexo adjunto (Unidades didácticas – Anexo al Plan de Orientación y Acción Tutorial) y están depositadas en el departamento de orientación.

5.- REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS Y OTRAS

Decreto sobre el currículo de la Educación Básica en la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 13 de noviembre de 2007).

Circular de Inicio de Curso para centros de ESO (Departamento de Educación GV).

Orientaciones para la elaboración del Plan de Acción Tutorial para la Educación Básica (cursos 1º y 3º de E.S.O. 2007/2008). (Departamento de Educación GV).

Orientaciones para la elaboración del Plan Individual de Refuerzo Educativo (PIRE) (Departamento de Educación de Gobierno Vasco)

Plan Estratégico de Atención a la Diversidad en el marco de una Escuela Inclusiva: 2012-16 (Departamento de Educación de Gobierno Vasco)

LOE (BOE de 4 de mayo de 2006), Currículum Vasco, Decretos sobre Diversidad.

Álvarez González, M. y Bisquerra Alzina, R. (Coord.): Manual de Orientación y Tutoría; autores varios; Praxis 2004, Barcelona.

Caruana Vañó, A. (Coord.): Orientación, Tutoría y Psicopedagogía (Experiencias y Recursos); autores varios, Cefire de Elda 2002, Alicante.

Sanjuán, P.: Tutoarentzako Ideiak; Nafarroako Gobern.-Hezkuntza Dep. 2003, Iruña.

Programas varios de Orientación Académico-Profesional.

Programas varios de Acción Tutorial.

Revista Idea de la Mancha nº4; Consejería de Educación y Ciencia: Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha 2007, Toledo.

<http://www.sortzen-ikasbatuaz.org>

<http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>

<http://www.elkarrekin.org>

<http://www.orientared.com>

<http://www.sortzen-ikasbatuaz.org>

<http://www.orientasare.org>

PLAN DE ORIENTACIÓN Y ACCIÓN TUTORIAL

Curso 2018-2019

IES DOLORES IBARRURI

ABANTO-ZIERBENA



ÍNDICE

PÁGINA

1.- INTRODUCCIÓN Y MARCO TEÓRICO.....	1
2.- CONTEXTUALIZACIÓN. (Análisis del centro y del contexto educativo)	1
3.- EL DEPARTAMENTO DE ORIENTACIÓN	3
3.1.- Necesidades básicas y selección de prioridades	4
3.2.- Ámbitos de intervención y evaluación	5
3.2.1.- Apoyo al proceso de enseñanza y aprendizaje.....	5
3.2.2.- Apoyo a la orientación académica y profesional.....	6
3.2.3.- Apoyo a la acción tutorial	7
4.- DESARROLLO DEL PAT	9
4.1.- Introducción.....	9
4.2.- Aportaciones al desarrollo de las competencias básicas y objetivos	10
4.3.- Ámbitos de intervención del tutor/a en la educación básica.....	10
4.4.- Planes específicos de intervención (unidades didácticas)	11
5.- REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS Y OTRAS	11
6.- ANEXOS:	
6.1.- Plan de Acción Tutorial	
6.2.- Planes específicos de intervención (unidades didácticas)	

1.- INTRODUCCIÓN Y MARCO TEÓRICO

En este periodo de transición entre dos leyes LOE y LOMCE y teniendo en cuenta el Marco del Modelo Educativo Pedagógico "Heziberri 2020" propuesto por el Gobierno Vasco teniendo a su vez como referentes el informe Delors, los informes PISA, el Plan Europa 2020, aportaciones de la Psicología Cognitiva, y la evolución de la sociedad, el objetivo de la Educación Básica ha ser el desarrollo integral de las capacidades y de las competencias básicas necesarias a lo largo de la vida en función de las posibilidades reales del sujeto para su realización y desarrollo personal, para llevar una ciudadanía activa y para su inclusión social y laboral.

